

## ZESUMA

# DEBAGOIENAKO TRIKITIXA EGUNAREN NONDIK NORAKOAK

Debagoienako Trikiti Eguna apirilaren 19 eta 26an ospatu zen Oñatin. Hona hemen ekitaldi honen berri, Eneko Zumaldek emana.

*-Egun bakarrean egin beharrean, bi asteburutan egin duzue. Zer moduz funtzionatu du horrela?*

Hasieratik trikitiari buruzko hainbat ekitaldi egiteko asmoa geneukan. Ekitaldi nagusiak 2 larunbatetan izan dira, baina aurretik Oñatz dantza taldeak fandango eta arin arin ikastaroak eman zituen, martxotik apirilera bitartean. Egia esan, ekitaldi guztiak primeran irten dira: dantza ikastaroan ikasitakoa praktikan jartzeko erroneria eta trikitiari buruz gehiago ikasteko antolatutako hitzaldia, besteren artean.

*-Ekitaldi nagusian (egun nagusi horretan) zenbat jendeke parte hartu zuen? Zenbat trikitixa-eskolak, hain zuzen?*

Apirilaren 26an 11 talde elkartu ginen. 9 trikiti-eskola eta helduxeagoz osatutako beste bi talde. Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio, Bergara, Soraluze, Antzuola eta Oñatiko Musika eskola, eta Saioa eta Alaitzen eskola. Bestalde, herriko hainbat beterano elkartu ginen beste talde bat antolatzeko, eta Aristerrazun aritzen diren artistek ere beste talde bat osatu zuten. Guztira berrehun eta berrogeita hamar bat trikitilari. Bazkaritara, berriz, bostehun bat lagun elkartu ziren. Lerro hauen bidez, Larraingain elkarteko lagunak eskertu nahi nituzke, berek gertatu baitziguten bazkaria.

*-Antolakuntza aldetik zer moduzko lana eta esperientzia izan da? Erreplikatzeko modukoa?*

Izugarrizko esperientzia. Zorionez antolakuntza-taldean lagun dezente elkartu gara, hamar bat, eta herriak ere asko



Omenaldiko une bat

lagundu digu. Eskerrak eman behar, Euskadiko kutxa, Sukia, Fagor, Ulma eta Oñatiko Udalarri, eman diguten diru-laguntzengatik, eta baita Oñatz dantza taldeari. Urte gutxiren buruan beste bat antolatzeko gertu egongo garela uste dut.

*-Zer moduzko harrera izan du egunak herrian?*

Izugarrria, espero baino hobea. Eskerrak eman beharrean gaude Oñati osoari.

*-Zer moduzko harrera du, oro har, trikitixak zuen herrian?*

Egia esan, ikasle asko daude, laurogeita hamar bat, baina gehienek urteak aurrera doazen ahala utzi egiten dute. Erroneriak egiten direnean, berriz, ez dugu dantzarik egiten, eta, oraingoa horren ondo joan denez, esperantza eta gogo handiz jarraituko dugu lanean.

*-Datorren urtean non egiteko asmoa duzue?*

Datorren urterako **Antzuolako herriari eman diogu lekukoa**. Espero dut hantxe egon ahal izatea. Guk gure esku dagoen guztia egingo dugu laguntzeko.

## KALEJIRAN

- **Maiatzaren 10ean soinu diatonikoari buruzko ikastaroa** izan zen **Zaragozan**, Carlos Coca eta Ignacio Alfayé irakasleen eskutik. Tartean, Aragoiko soinu-jotzaileen kontzertua izan zen, eta bertako dantza tradizionalak dantzatzeko aukera ere izan zen.
- **Azkoitiko Marttite auzoko Pentekoste jaietan Zumarragako Trikitixari** egin zitzaion **omenaldia**. Bertan izan ziren Astiasaran anaiak eta Beltran, Laja eta Mikel, Egurrola aita-semeak eta Jauregi, Kupela taldea, Zendoia eta Lutxurdio, eta Felix Illarramendi eta Joxe Mari Mendizabal.

## GALBAHEA

**Xabier Solano, Esne Beltza taldeko kidea:** "Esne Beltzaren diskoak *Made in Euskal Herria* izena du, eta izenak berak dioten bezala, Euskal Herrian egindako kanpoko musika da (...) Beste berezitasun bat hizkuntzak dira: lehena euskara da, baina gaztelera, italiara, japoniera eta arabiera ere badaude (...) Esne Beltza izena Fermin Muguruzak proposatu zigun. Beltzen musika egiten dugu eta zuriak gara; esne beltza omen ginen (...) Diskoan soul, ska, reggae, funky, hip-hop... denetarik dago. Taldean bederatzi pertsona gara eta denei gustatzen zaigun estilotik hartu dugu. Diskoa oso eklektikoa da."

(Argia, 2008-06-03)

# ALTZA PORRU!

2008ko ekaina / 29.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ - Tel.: 943 83 28 28  
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkarte  
L.G. : SS-418/01

## FABOREZ 02 diskoa



**Faborez bildumari** lehengo urtean eman zitzaion hasiera. Bildumaren izenburuak neska **dantzara ateratzeko eskaerari** egiten dio erreferentzia. Bilduma, pixkanaka-pixkanaka, osatzen ari da. Hala, oraingo honetan bigarren lan honek ikusiko du argia. Amoroetoko Musikortan estudioan grabatu da disko hau eta soinu-teknikari lanetan Jabi Nabarro aritu da. **Aurkezpena Martitten (Azkoitia-Gipuzkoa)** izango da **uztailaren 5ean**, afalostean. Pentsaurrekoa, berriz, Donostian egingo da hil honetan.

Hona hemen diskoan parte hartu dutenen eta beren **erreperitorioaren berri**:

**Urtzi Enrikez eta Gorane Sagasti**

Galdakaoko bikotea da Urtzik eta Goranek osatzen dutena. Urtzi Iñaki Zabaletaren ikaslea da, eta Fasio, Rufino Arrola edo Balbino-ren piezak baliatu ditu bilduma honetarako.

- BALBINON MARTXEA Kalejira
- ASKO GURUTZUT BAINA... Trikitixa
- KATU-KONTUEK Porrusalda
- KOLDOBIKE Fox-a
- PARIS Baltsa

**Laja II eta Narbaiza**

Urolako ordezkariak ditugu. Laja I.aren erreperitorioa izan dute oinarri lan honetan.

- EUSKAL FUTBOLAREN JAIA Kalejira
- MANOLETE Pasodoblea
- MAITEKIRO-NON ZAUDE BIHOTZA Tangoa
- GERRA KONTUAK Baltsa
- ZAZPIKI Kumbia

**Baltzola anaiak**

Elgoibarko bikoteak sueltoko eta lotuko piezak tartekatu ditu.

- TRIKITIXA
- PORRUSALDA
- FANDANGO
- FOX-A
- NIRE MANOLO Pasodoblea

**Gari eta Iñaki**

Zumarragako Trikitixaren ondorengoek beren ahotsen indarra ekarri diote soinuaren erreperitorioari.

- AMETS-GITARRA ZAHARTXO BAT Kantua
- HERRIKO FESTAK Kantua
- TRIKITIXA
- FANDANGO
- BI NESKA ZAHAR-RANTXO HANDIAN Rantxera

Disko honetan guztira **20 pieza** bildu dira. Egia esan behar bada, lehengo erreperitorioa bikain jo dute egungo trikitilari hauek. Gogoan izan, **uztailaren 5ean, Martitten afariaz eta diskoaren aurkezpenaz gozatu nahi duenak Martittera bertara deitu** behar duela izena emateko. Hona hemen telefono zenbakia: **943 857332**

## FABOREZ 01 Partitura-liburua



Lehengo urtean argitaratu zen **Faborez 1 diskoaren partitura-liburua** plazartzu da hasi berri den hilabete honetan. **Transkripzioak Xabi Aburruzaga eta Jon Ostolazak** egin dituzte, eta **sarrerako testua**, berriz, **Mielanjel Haranak**. Guztira **20 kanta** biltzen ditu lan honek, honako hauek, hain juxtu:

**Izer eta Alabier**

- En la fabrica. Kalejira
- Elzisa-Txistulariena. Fandangoa
- Igo zaitetz palmara. Baltsa
- Urte zahar gaua. Pasodoblea
- Latza. Bolero-pasodoblea

**Estanga anaia-arrebak**

- Kizkitzako fandangoa
- Urigoiti. Pasodoblea
- Mendi menditik. Kalejira
- Donostiako kalien. Trikitixa
- Nere kantua zera. Fox-kumbia

**Jon Ostolaza eta Rakel Pujana**

- Dantzazale bazauze. Trikitixa
- Amaren preguntia. Porrusalda
- Kamiñerokua. Fandangoa
- Sargoate-irukurutzeta. Arin-arina
- Zaldun garaia. Pasodoblea

**Agurtzane eta Jon Elustondo:**

- Ala porai! Trikitixa
- Inkirrinki. Porrusalda
- Fandakoa. Fandangoa
- Putxuniketan. Boleroa
- Zirrara. Fandangoa

## 2008ko KUOTA

Bazkideei jakinarazten diegu 2008ko kuota uztailean kobratuko zaiela.

## SAN JOSETAKO TRIKITI JAIALDIAN GIRO ONA



Omenaldia amaitutakoan trikitilari guztiak elkarrekin Aristerrazuko dantzariarentzat sueltoko pieza batzuk jo zituzten

Aurten ere **arrakasta handiz** ospatu da sanjosetako jaialdia. **Azpeitiko Udalaren eta Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen** eskutik antolatzen den urteroko zitara jende ugari gerturatu zen, eta bai antolakuntza, bai ikusleak oso pozik geratu ziren Izarraitz pilotalekuko ikuskizunarekin.

Aurtengo jaialdian **parte hartu duten jotzaileak** honoko hauek izan dira:

- Kupela taldea eta Furundarena
- Allur anaiak
- Eneko Etxabe eta Oihana Irastorza
- Maixa, Ines eta Maite
- Koldo Iturbe, Xabi Aburruzaga eta Joseba Urrutia
- Tapia eta Leturia

Lehenengo urteko formatuari eutsi diote iragan berri den edizioan ere. Hala, aurten **Aiako San Pedro auzoan dagoen Aristerrazu trikiti-plaza** izan dute gogoan, eta omenaldi xume bat egin nahi izan diote. Ildo honetan, Azpeitiko Izarraitz pilotalekua Aristerrazuko giroaz blaitzeko, Aristerrazun urtetan dantzan ibilitako jendea gonbidatu zen zenbait pieza dantzatzera. Esan bezala, giro ezin hobea izan zen saioan, eta Azpeitian bildutakoek gozatu ederra hartu zuten.

## 2008KO TRIKITIXARI BURUZKO JARDUNALDIEN ARRASTOAN

Irailaren bigarren astean izango dira **trikitixari buruzko jardunaldiak**, hilaren **9, 10 eta 11n** hain zuzen. Aurten **TEKNOLOGIA BERRIAK** hartu dira ardatz. Hona hemen egitaraua:

- **Irailaren 9an:** Hitzaldia, Udal Liburutegiaren sotoan **XABI ERKIZIA**
- **Irailaren 10ean:** Hitzaldia, Udal Liburutegiaren sotoan **Oraindik zehaztu gabe**
- **Irailaren 11n:** Saio praktikoa, Donostiako Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan **JAVI P3Z ETA CARLES BELDA ASIER ERCILLA ETA DAVID NANCLARES**

## JARDUNALDIETAKO MAMIA LIBURUAN BILDUTA

2005etik 2007ra bitarteko jardunaldietako edukia liburu batean izango da eskuragarri hemendik aurrera, EHTEri esker. Bertan bilduko den materiala honako hau da:

### KOPLAK (2005)



Mixel Ducau eta Xabier Amuriza Bizkaiko Koplak kantatzen, 2005eko iraila

2005. urtean koplak hartu ziren abiapuntu, eta liburuan orduko hitzaldiak bildu dira:

- **Bizkaiko koplak zaharrak**, Xabier Amuriza eta Mixel Ducau
- **Dantzarako koplez**, Jabier Kalzakorta
- **Trikiti-kopla zahar eta berriak**, Joxemari Iriondo eta Antton Valverde

### ELGETA (2006)



Laja eta Landakanda, eta Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa Donostiako Udaletxean

2006. urtean Elgeta trikitilari handia hartu zen ardatz. Hona hemen jasotako hitzaldiak:

- **Elgeta hitzez eta doinuz**, Iker Goenaga
- **Soinuaren lekuak: Elgetatik nora?**, Koldo Izagirre
- **Parte gaiztoko soinuaren maisua**, Antzerki-solasa, Koldo Izagirre

### TXAPELKETAK (2007)



Koldo Tapia, Imanol Urkizu, Koldo Iparragirre eta Oier Araolaza txapelketen inguruan antolatutako mahai-inguruan

Iaz txapelketen jiran antolatu ziren jardunaldiak. Txapelketen historia, nondik norakoak eta hausnarketa biribildu zituzten, hitz bitan.

- **Besteren behatzarekin pareta zulotik txapelketa ateratzen**, Mielanjel Elustondo
- **Txapelketaren zauri gozoa**, Joseba Tapia
- **Trikitixa: txapelketak eta biharra**, Koldo Tapia (moderatzailea), Koldo Iparragirre, Imanol Urkizu eta Oier Araolaza (partehartzaileak)

## Disko berriak

### OSTOLAZA eta PUJANA: Lasturbidean



Lastur inguruan, jendearen musika gosea asetzeko, trikitilari askok parte hartu izan du erromerietan. Itziar eta Lasturrekin zeukaten harremanagatik, **Jon Ostolaza** trikitilariak **Sakabi, Elgeta, Gelatxo eta Txankartak** jotzen zituzten piezak aukeratu ditu disko honetarako.

Lau soinu-jotzaile bikain hauek elkarri piezak erakusteaz gain, txistularien, musika-banden, dultzaineroen eta albokarien erreperitorioak ere bere egiten zituzten. Baina entzulegoa asetzeko horrekin nahikoa ez, eta garai hartan modan zeuden abestiak irratietan entzun eta egokitu egiten zituzten, beren nahierara. Ildo honetan, **Jon Ostolaza eta Rakel Pujanaren** eskutik, **fandangoa, fox-trot, baltsa, kalejira eta arin-arinak** ditugu entzungai disko berezi honetan. Ekainean izango da kalean Gaztelupeko Hotsak zigiluaren eskutik.



### ESNE BELTZA: Made in Euskal Herria

Esne Beltza 2007an sortu zen, honako musikari hauekin: **Xabier Solano**

(ahotsa eta soinu txikia; Etzakit, Lau Itzal, The Solanos, Fermin Muguruza), **Jon Mari Beasain** (gitarra; Etzakit, Mal de Ojo), **Sergio Ordoñez Patxuko** (ahotsa eta perkusioa; Joxe Ripiau, The Solanos), **Iban Zugarramurdi** (bateria; Baldin Bada, Su Ta Gar, Fjord), **Aitor Zabaleta** (baxua; Etzakit, Izotz), **Zigor Lampre DZ** (dj; Selektah Kolektiboa, Fermin Muguruza), **Aritz Lonbide** (tronpeta; Ttak, Fermin Muguruza, Javi Pez Orkestra), **Jon Elizalde** (tronboia; Ttak, Fermin Muguruza, Javi Pez Orkestra) eta **Pello Gorrotxategi** (teklatuak; Izotz). Urte berean eskaini zituen lehen kontzertuak, Euskal Herrian eta Katalunian, Joxe Ripiau, Etzakit, Fermin Muguruza eta Negu Gorriak-en bertsioak eginez. **Made in Euskal Herria (Gaztelupeko Hotsak, 2008)** da Esne Beltzaren lehen diskoa.

Fermin Muguruzaren **Euskal Herria Jamaika Clash** diskoa (2006) grabatzeko Xabier Solanok (ahotsa eta soinu txikia), Jon Elizalde (tronboia) eta Xabi Peryk (ekoizlea) Bob Marleyren Tuff Gong estudio mitikora egin zuten bidaian koka genezake Esne Beltzaren **abiapuntua**. Kingston hiriburuan



reggae musikari eta ekoizle esanguratsuenetako batzuekin lan egiteko aukera izan zuten, BECen emandako kontzertu gogoangarria etorri zen gero, eta haren ondotik Afro-Basque Fire Brigade taldearekin munduari emandako bira. Elkarrekin eskainitako kontzertuetan, Japoniatik Bartzelonara, Mexikotik Irlandara, Bilbotik Habanara egindako bidaia luzeetan eta hoteletako logeletan izandako solasaldietan mamitu zen Esne Beltza.

**Made in Euskal Herria**, soinu, erritmo eta hizkuntzen arteko nahasketa zirraragarria da. Nolabait esateko, **zuriek egindako musika beltza da** (soul, ska, reggae). **Hamabost kanta** bildu dituzte guztira, baita making off-a ere. **Hitzak** Solanoren proiektu orotan bezala, **Jon Garmendia Txurik** idatzi ditu, eta maitasuna, nortasuna eta askatasuna dira letretako zutabe. **Maialen Lujanbiok eta Jon Maiak** ere parte hartu dute, bina abestitarako letrak eginez. Lanari azken kuituak ematen, musika elektronikoko diskoen grabazioan eta ekoizpenean gero eta esperientzia handiagoa duen **Xabi Pery** (Itoiz taldeko kide ohia) jardun da, eta soinu-mahaian erakutsitako abilezia begi-bistan geratu da.